



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.06.11

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren hamaikan, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. - Aurreko akta onartzea.
2. - Onartzea Tolosaldeko Komunikazio Taldeari diru-laguntza izenduna emateko hitzarmena.
3. Onartzea Garabide elkarteari diru-laguntza izenduna emateko hitzarmena.
4. Onartzea Bertsozale elkarteari diru-laguntza izenduna emateko hitzarmena.
5. Tolosaldeko Komunikazio Taldearen (ATARIA) diru-laguntza: onartzea 2017ko diru-laguntzaren azken zatiaren ordainketa.
6. 2018ko Sanjoanetako egitaraua eta aurrekontua.
7. Onartzea CIT-TEE elkarteari diru-laguntza izenduna emateko hitzarmena.
8. "12.4 San Frantzisko pasealekua 32-34-36" azpiesparrua urbanizatzeko proiektuaren behin betiko onarpena.
9. Kale garbiketako kontratuaren prezioen berrikuspena eta kontratua luzatzeko akordioaren zuzenketa.
10. 28/2018 eta 29/2018 faktura-



TOLOSAKO
UDALA

zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko ekainaren 4an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. - ONARTZEA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

Tolosako Udaleko Euskara teknikariak, 2018ko ekainaren 1ean egindako txostenean, interesekotzat jotzen du aipatutako Taldeari diru-laguntza izenduna ematea.

Guztira, 91.500 euroko diru-laguntza planteatu du.

Izan ere, egitasmoaren azterketa egin ondoren, ekimenak berak euskararen normalizaziorako duen balioa kontuan izanik, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari aipatutako diru-laguntza ematea proposatu du teknikariak. Txostenean dio hedabideen eragina pertsonengan handia dela eta, jakina, euskararen normalizazioa lortzekotan erabilera esparru horri serio heldu behar zaiola, hain baita nabarmena erdarak duen indarra sektore horretan eta euskarak duen ahulezia.

Tolosaldean, garrantzitsua izanik euskara hutsezko euskarri ezberdinetako erakundea sortzea, Tolosaldeko informazioa euskara hutsean ematea ezinbestekotzat hartzen du Euskara teknikariak.

Beraz, euskararentzat garrantzitsua denez herri edota eskualde hedabideak euskara hutsezkoak izatea, proposatu du Tolosaldeko Komunikazio Taldeari diru-laguntza ematea. Hedabide proiektu honek Galtzaundi astekaria, Tolosaldeko Hitza egunkaria eta Txolarre irriaren bateratzeak sortua da eta eskaintza multimedia osatu du.

Proposamena egin ondoren, txosten juridikoa eskatu du.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.-Oinarri juridikoa eta udalaren eskumena Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.



- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua m) atalak udalek, besteak beste, "Kultura sustatzea eta kultur ekipamenduak" arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 17.1.20. artikulua arabera udalerriek, besteak beste, ondorengo esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: "kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea".

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere Zioen Azalpenean, bere IV apartatua honela dio: "Bistakoa da tokiko politikaren kalitate instituzionala hobetu beharra dagoela udal-gobernuek bere legitimitatea indar dezaten, zerbitzu-zorro iraunkor eta efizientea garatuz. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea, eta udalaren legitimazio instituzionalaren oinarria da, neurri handi batean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta herritarrei bizi kalitate egokia eskaintzea, eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuta; horien artean, gainera, hizkuntza eskubideak.

Hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura eta hizkuntza eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde. Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean, non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratu eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz.

Toki-agintarien jarduerak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen



TOLOSAKO
UDALA

duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan-karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsi izan ondoren, non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen "hizkuntza erregionalaren edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hitzunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak, hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hitzunikiko diskriminazio-egintzatzat.

Azken finean, lege honek bilatzen du euskal toki-erakundeei erabateko toki-autonomia bermatzea modu efektiboan esku har dezaten beren auzotarren interes eta asmoei eragiten dieten gainera muga bakarria izanik errespetatzea eraginkortasunaren, efizientziaren eta administrazio onaren printzipioak eta betiere, mendeturik aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko arautegi aplikagarriari, udal autogobernuko eredu garatuenekin koherentzian jokatzuz eta 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiari buruzko Europako Kartaren espirituarekin eta printzipioarekin bat etorriz, karta hori indarrean baitago gure ordenamendu juridikoan 1988ko urtarrilaren 20an berretsi izan ondoren. Eta hori guztia Toki Autonomiari buruzko Europako karta lehentasunezko iturri bat delako toki-araubideari buruzko legeen integrazioarako eta interpretazioarako.

Era berean, Lege honek, bere 7. artikuluan "Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerrari dagokionez" atalean ondorengoa dio, bere 2. apartatuan:

"Era berean, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, bere lurralde eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek **euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.**

2. Udalaren sustapen-neurriak eta diru-laguntzak. Prozedura:

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. eta hurrengo artikuluek udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru-laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko hiru araudi nagusi hauek arautzen dituzte:



- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.
- Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorra.

Arautegi horien arabera, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidezkoa da.

Halere, **zuzenean eman daitezke** honako diru-laguntza hauek:

a) Toki-entitateen aurrekontu orokorretan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, diru-laguntza horien hitzarmenetan eta araudian jasotako baldintzetan.

Hauexek dira toki-entitateen aurrekontuetako diru-laguntza izendunak: helburua, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna zehaztuta dituztenak aurrekontuaren gastuen orrian.

b) Lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaizkion diru laguntzak edo zenbatekoak; diru-laguntza hauek emateko, arauaren beraren arabera aplikatu beharreko prozedura jarraitu beharko da. Bestalde, diru-laguntza hauek erregulatuko dituzte lege-mailako arau horrek berak eta dagokion administrazioari berariaz aplikatu beharrekoak direnek.

c) Salbuespenez, honako diru-laguntza hauek eman daitezke zuzenean: interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoak tarteko direla justifikatzen dutenak eta halako laguntzak emateko deialdi publiko bat egitea ezinezkoa dela ere justifikatzen dutenak justifikazio arrazoituaren eta agiri bidezko memoriaren bidez.

Diru-laguntzak eman aurretik, onartuta egon behar dute haien oinarri erregulatzaileak ezartzen dituzten arauak.

Legeriaren arabera, aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunen kasuan, diru-laguntza emateko egintza edo hitzarmena bera diru-laguntzak emateko oinarri arautzailetzat joko da; era berean, hitzarmenak diru-laguntzen Lege Orokorraren 28.3 artikuluko elementuak jaso beharko ditu¹.

¹ 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2006 diru-laguntzen Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duena; 65.3 artikulua, bigarren paragrafoa; 67.2 artikulua, bigarren paragrafoa.

38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa, 28.3 artikuluan agertzen den Errege Dekretua.



Diru-laguntza zuzenean emateko prozeduraren oinarriko ezaugarria da ez dela exijitzekoa publizitatearen eta norgehiagokaren printzipioak betetzea, eta lehen aipatu bezala, Legean aurreikusitako kasu horietan soilik aplikatu daitezke. Hori bai, kontuan izan behar da ematen diren diru-laguntza guztiak haien datu-basera bidali behar direla (BDNS-Banco de Datos Nacional de Subvenciones), egintza erregistragarriak gertatu ahala bidali ere, eta helarazi behar direla egintza gertatu eta hurrengo hilabete naturala bukatu baino lehen².

Era berean, kontuan izan behar da ondorengo betebeharrak hau ere³: Subentzio edo laguntza publiko batek deialdia egitea ez badu derrigorrezko, hura ematen duen organoak BDNSn erregistratu beharko ditu datu egituratuak, honako epe hauetan: xedapen arautzailea argitaratu eta berehala, baldin eta subentzioak edo laguntzak hartzaile zehazturik ez badu; eta ematen den momentuan, gainerako kasuetan. SNPS-DPSNk (Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones-Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionala) berehala egingo du datu horien publizitatea, eta ez da aplikagarria izango 72 orduko epea, bosgarren xedapenean ezarrita dagoena; era berean, ez da beharrezkoa estraktua aldizkari ofizialean argitaratzea.

Xehetasunean, Legedi hau aplikatu behar da:

- Diru-laguntzen udal ordenantza. Kasu honetan, diru-laguntza izendunak udal ordenantzako 13.3.a eta 18-22 artikuluek arautuko dituzte.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 21., 22., 25. eta 72. artikulua.

— 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, toki-korporazioen zerbitzuen araudia onartzen duena; II. Titulua.

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa; 9.2, 22.2, 28., 30. eta ondorengoak.

— 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua; 55., 65., 66. eta 67. artikulua. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten.

— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ean emana. Horren bidez arautzen da zer prozesu jarraitu behar den Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalan (SNPS) subentzio eta laguntzen deialdien erregistroa eta publizitatea egiteko.

2 Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20.8.b artikulua, ondorengo honetan garatua: Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9koa; 4.2 artikulua.

3 Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ekoa; seigarren artikulua.



— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9an emana. Horren bidez arautzen dira Diru-laguntzen Datu-Base Nazional berriari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna.

---40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arena. Konkretuki, 47-53 artikuluetan zehaztutakoa. Batez ere, kontutan hartu behar da 48.7 artikulua dioena: "Cuando el convenio instrumente una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo, que en su caso, resulte aplicable.

Prozedura, normalean, ofizioz hasiko da. Horretaz gain, prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, kasu hauetan: aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendun bat eman behar denean, eta lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaion zuzeneko diru-laguntza bat eman behar denean, baldin eta entitate emailearen eta onuradunen artean hitzarmena sinatu behar bada.

Zuzeneko diru-laguntza emateko prozedura orokorra honako hau da:

A. Departamentuko arduradunak egiaztatu behar du diru-laguntza eskaerak ondoko baldintzak betetzen dituela:

-Eskatzailea den Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoela, eta bere ordezkaria .

-Elkartearen Estatutuetan arautzen den xedea bat datorrela diruz lagunduko diren jarduerekin.

-Elkartea egunean dagoela bere betebeharrak Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.

-Eskatzaileak erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko du, diru-laguntza jasotzeko inolako debekurik edo bateraezintasunik ez duela, eta dagokion ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Halaber, eskatzaileak zehaztu behar ditu bere eskaeraren jarduerak eta aurrekontua.

Arduradunak txostena egingo du, goian azaldutakoa egiaztatuz. Bestalde, txosten hori egingo du jakiteko ea aurrekontuan diru-izendapenik badagoen edo ez diru-laguntza izendun hori emateko.

Era berean, diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio Kontuhartzaitzaren txostena behar dela.

B. Gobernu Batzarrak erabakia hartuko du.

C Hitzarmena formalizatuko da; bertan jasoko dira emakidadunak dituen betebeharrak eta konpromisoak diru-laguntza aplikatzeko eta justifikatzeko.



TOLOSAKO
UDALA

D. Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, legeriak agindu bezala eman ere⁴.

E.-Iragarkia Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igorriko da .Baita gardentasun atarira ere.

F. Diru-laguntza jasotzeko, dokumentazioa aurkeztu behar da haren aplikazioa justifikatzeko. Oinarrietan jasota egongo da zer dokumentazio eskatu.

Kontuan hartu behar da, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorrak bere 10.8.artikuluaren esaten duena: "Inola ere ezingo dute onuradun izaerarik izan Tolosako Udalak edo beren erakunde publikoek emandako diru-laguntzak justifikatzeko daudenak, behin justifikazio hori aurkezteko epea bukatuz gero, kontuan hartu gabe DLOaren Araudiaren 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua egin den ala ez. Debeku horren ebaluazioa modu automatikoan egingo da, eta indarrean egongo da justifikazioa aurkeztu arte". Puntu honetan, beraz, kontuhartzaileak egingo duen txostenari heldu behar da.

Diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio kontuhartzailearen txostena behar dela.

Prozedurari dagokionez, araututa daude berezitasun batzuk, diru-laguntza motaren arabera⁵. Hori dela eta, hauek izan behar dira kontuan:

Aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izenduna eman behar bada, ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak puntu hauek jaso behar ditu⁶:

- Zehaztu behar da diru-laguntzaren eta haren onuradunen helburua, aurrekontuko diru-izendapenaren arabera.
- Zer aurrekontu-kredituari egotziko zaion gastua eta diru-laguntzaren zenbatekoa, banan-banan, baldin eta onuradun bat baino gehiago badira.
- Diru-laguntza horren bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekiko, Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio, ente publiko edo pribatuena izan, nazioarteko erakundeena izan.
- Epeak eta moduak diru-laguntza ordaintzeko; ordaintza aurreratzeko edo konturako ordaintzak egiteko aukera; onuradunek jarri beharko bermeen arauak.
- Epea eta moduak onuradunak justifikatu dezan diru-laguntzak bete duela zeukan helburua, eta nola erabili diren jasotako diruak.

4 39/2015 Legea, urriaren lekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40. eta 41. artikulua.

5 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

6 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; 65.3 artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

Gainera, kontuan izango dira Udal Ordenantzako 18.3 artikuluan jasotako puntuak.

3.-Organo eskuduna:Gobernu Batzordea. Horrela dio 2015/1.278 Alkate Dekretuak "Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea ondorengo eskuduntzak: "Diru-laguntzak eta laguntzak, konkurrentzia prozeduraren bidez ematen ez direnak, salbu Gizarte Ongizateko arautuak"

Beraz, bukatzeko:

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak betetzen ditu diru-laguntza izenduna jasotzeko baldintzak.

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM-ri diru-laguntza zuzena ematea, 91.500 euro, 2018ko aurrekontuetako 0900 481.01.33510 partidaren kargura.

BIGARRENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Komunikazio Taldearen arteko hitzarmena, ondoko klausulen arabera:

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta TKT-ren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerraren barruan.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- Hedabideen alorrean, euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

- Ekoizpen ildo hauek:

- *Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta 32 orriko astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.*
- *Ataria Irratia: 24 ordutan, urte osoan: gutxienez %25eko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko*
- *Internet: urte osoan: ataria.eus web gunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe*



TOLOSAKO
UDALA

- *Eskualdeko tokiko hedabideekin elkarlan bideak jorratzea, sinergiak baliatzeko eta interes komunekoa eta kalitatezko edukiak ekoizteko.*

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 91.500 eurokoak izango dira, 0900481.01.33510 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantziazio kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) *Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.*

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) *Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.*

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.



Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak erantsi behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritutasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintzak eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egin behar da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatu behar da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitatearen bidez, oro har, honako dokumentazio hau duela:

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adierazi behar da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria bat, non hauek jasoko diren:

– Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak.

- Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak. Agiri horiei erantsiko zaie egindako ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa.



TOLOSAKO
UDALA

– Berreskuratu edo konpentsatu ezin daitezkeen zeharkako zergak justifikazioaren osagaiak badira, pertsona onuradunak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko aitorten bat, zehaztu ahal izateko frogagiritan ageri diren zergetatik zein hartu litezkeen diruz lagundutako gastutzat.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehaztu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntzaren ordainketa egin behar da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela-eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzaren % 75, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25a egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.

Bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.



TOLOSAKO
UDALA

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.

Hamabigarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalauagarrena: lan- eta zerga-legeria. *Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.*

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

Hemezortzigarrena:

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.



TOLOSAKO
UDALA

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

HIRUGARRENA.- Iragarkia Diru Laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igortzea.

LAUGARRENA.- Diru-laguntza hau Gardentasun atarian argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

3. ONARTZEA GARABIDE ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

Tolosako Udaleko Euskara teknikariak, 2018ko maiatzaren 24an egindako txostenean, interesekotzat jotzen du aipatutako Elkarteari diru-laguntza izenduna ematea.

Guztira 4.000 euroko diru-laguntza planteatu du.

Izan ere, egitasmoaren azterketa egin ondoren, ekimen berak euskararen normalizaziorako duen balioa kontuan izanik, Garabide Elkarteari aipatutako diru-laguntza ematea proposatu du teknikariak. Txostenean dio euskarak garapen osoa izatea helburu duen erakundea dela hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzan bideratzeko helburuarekin sortu zenez, ardatz potentzialetakoa dela, orain arte mamitu ez den kooperazio ildo bati oinarria eskatzea dela elkartearen egitekoa.

Beraz, ezinbestekotzat jotzen du diru-laguntza hori ematea.

Txosten juridikoa eskatu du.

AZTERKETA JURIDIKOA Aurreko izaeraz, Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren beharra

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, diru-laguntzak erregulatzen dituenak, honela dio bere 8.1.artikuluari:

“Artículo 8. Principios generales.

1. Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de



financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

2. Cuando los objetivos que se pretenden conseguir afecten al mercado, su orientación debe dirigirse a corregir fallos claramente identificados y sus efectos deben ser mínimamente distorsionadores.

3. La gestión de las subvenciones a que se refiere esta ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

- a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.*
- b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.*
- c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.”*

Zentzu honetan, Udaltzak 2017-2019 urteetarako Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen. Garabide Kultur Taldea sartuta dago plan estrategiko horretan, non diru-laguntza zuzena bere alde aurreikusten den.

1.-Oinarri juridikoa eta udalaren eskumena Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua m) atalak udalek, besteak beste, “Kultura sustatzea eta kultur ekipamenduak” arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten



TOLOSAKO
UDALA

eskumen propioak zehazten ditu; 17.1.20.artikuluaren arabera udalerriek, besteak beste, ondorengo esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: "kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea".

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere Zioen Azalpenean, bere IV apartatuan honela dio: "Bistakoa da tokiko politikaren kalitate instituzionala hobetu beharra dagoela udal-gobernuek bere legitimitatea indar dezaten, zerbitzu-zorro iraunkor eta efizientea garatuz. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea, eta udalaren legitimazio instituzionalaren oinarria da, neurri handi batean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta herritarrei bizi kalitate egokia eskaintzea, eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuta; **horien artean, gainera, hizkuntza eskubideak.**

Hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura eta hizkuntza eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde. Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratu eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz.

Toki-agintarien jarduerak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan-karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsi izan ondoren, -non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen "hizkuntza erregionalaren edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak, hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hiztunekiko diskriminazio-egintzatzat.



TOLOSAKO
UDALA

Azken finean, lege honek bilatzen du euskal toki-erakundeei erabateko toki-autonomia bermatzea modu efektiboan esku har dezaten beren auzotarren interes eta asmoei eragiten dieten ginetan muga bakarra izanik errespetatzea eraginkortasunaren, efizientiaren eta administrazio onaren printzipioak eta betiere, mendeturik aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko arautegi aplikagarriari, udal autogobernuko eredu garatuenekin koherentzian jokatzuz eta 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiari buruzko Europako Kartaren espirituarekin eta printzipioarekin bat etorriz, karta hori indarrean baitago gure ordenamendu juridikoan 1988ko urtarrilaren 20an berretsi izan ondoren. Eta hori guztia Toki Autonomiari buruzko Europako karta lehentasunezko iturri bat delako toki-araubideari buruzko legeen integrazioarako eta interpretaziorako.

Era berean, Lege honek, bere 7. artikuluan “Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez” atalean ondorengo dio, bere 2. apartatuan:

“Era berean, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, bere lurralde eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek **euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.**

2. Udalaren sustapen-neurriak eta diru-laguntzak. Prozedura:

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko hiru araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.
- Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorra.

Arautegi horien arabera, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidezkoa da.

Halere, **zuzenean eman daitezke** honako diru-laguntza hauek:



a) Toki-entitateen aurrekontu orokorretan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, diru-laguntza horien hitzarmenetan eta araudian jasotako baldintzetan.

Hauexek dira toki-entitateen aurrekontuetako diru-laguntza izendunak: helburua, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna zehaztuta dituztenak aurrekontuaren gastuen orrian.

b) Lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaizkion diru laguntzak edo zenbatekoak; diru-laguntza hauek emateko, arauaren beraren arabera aplikatu beharreko prozedura jarraitu beharko da. Bestalde, diru-laguntza hauek erregulatuko dituzte lege-mailako arau horrek berak eta dagokion administrazioari berariaz aplikatu beharrekoak direnek.

c) Salbuespenez, honako diru-laguntza hauek eman daitezke zuzenean: interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoak tarteko direla justifikatzen dutenak eta halako laguntzak emateko deialdi publiko bat egitea ezinezkoa dela ere justifikatzen dutenak justifikazio arrazoituaren eta agiri bidezko memoriaren bidez.

Diru-laguntzak eman aurretik, onartuta egon behar dute haien oinarri erregulatzaileak ezartzen dituzten arauak.

Legeriaren arabera, aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunen kasuan, diru-laguntza emateko egintza edo hitzarmena bera diru-laguntzak emateko oinarri arautzailetzat joko da; era berean, hitzarmenak diru-laguntzen Lege Orokorreko 28.3 artikuluko elementuak jaso beharko ditu⁷.

Diru-laguntza zuzenean emateko prozeduraren oinarritzko ezaugarria da ez dela exijitzekoa publizitatearen eta norgehiagokaren printzipioak betetzea, eta lehen aipatu bezala, Legean aurreikusitako kasu horietan soilik aplika daiteke. Hori bai, kontuan izan behar da ematen diren diru-laguntza guztiak haien datu-basera bidali behar direla (BDNS-Banco de Datos Nacional de Subvenciones), egintza erregistragarriak gertatu ahala bidali ere, eta helarazi behar direla egintza gertatu eta hurrengo hilabete naturala bukatu baino lehen⁸.

⁷ 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2006 diru-laguntzen Lege Orokorren erregelamendua onartzen duena; 65.3 artikulua, bigarren paragrafoa; 67.2 artikulua, bigarren paragrafoa.

⁸ 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa, 28.3 artikuluan agertzen den Errege Dekretua.



Era berean, kontuan izan behar da ondorengo betebeharrak hau ere⁹: Subentzio edo laguntza publiko batek deialdia egitea ez badu derrigorrezko, hura ematen duen organoak BDNSn erregistratu beharko ditu datu egituratuak, honako epe hauetan: xedapen arautzailea argitaratu eta berehala, baldin eta subentzioak edo laguntzak hartzaile zehazturik ez badu; eta ematen den momentuan, gainerako kasuetan. SNPS-DPSNk (Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones-Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionala) berehala egingo du datu horien publizitatea, eta ez da aplikagarria izango 72 orduko epea, bosgarren xedapenean ezarrita dagoena; era berean, ez da beharrezkoa estraktua aldizkari ofizialean argitaratzea.

Xehetasunean, Legedi hau aplikatu behar da:

- Diru-laguntzen udal ordenantza. Kasu honetan, diru-laguntza izendunak udal ordenantzako 13.3,a eta 18-22 artikuluek arautuko dituzte.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 21., 22., 25. eta 72. artikulua.

— 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, toki-korporazioen zerbitzuen araudia onartzen duena; II. Titulua.

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa; 9.2, 22.2, 28., 30. eta ondorengoak.

— 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua; 55., 65., 66. eta 67. artikulua. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten.

— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ean emana. Horren bidez arautzen da zer prozesu jarraitu behar den Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalan (SNPS) subentzio eta laguntzen deialdien erregistroa eta publizitatea egiteko.

— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9an emana. Horren bidez arautzen dira Diru-laguntzen Datu-Base Nazional berriari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna.

---40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arena. Konkretuki, 47-53 artikuluetan zehaztutakoa. Batez ere, kontuan hartu behar da 48.7 artikulua dioena: "Cuando el convenio instrumento una subvención deberá cumplir con

8 Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20.8.b artikulua, ondorengo honetan garatua: Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9koa; 4.2 artikulua.

9 Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10koa; seigarren artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo, que en su caso, resulte aplicable.

Prozedura, normalean, ofizioz hasiko da. Horretaz gain, prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, kasu hauetan: aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendun bat eman behar denean, eta lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaion zuzeneko diru-laguntza bat eman behar denean, baldin eta entitate emailearen eta onuradunen artean hitzarmena sinatu behar bada.

Zuzeneko diru-laguntza emateko prozedura orokorra honako hau da:

A. Departamentuko arduradunak egiaztatu behar du diru-laguntza eskaerak ondoko baldintzak betetzen dituela:

-Eskatzailea den Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoela, eta bere ordezkaria .

-Elkartearen Estatutuetan arautzen den xedea bat datorrela diruz lagunduko diren jarduerekin.

-Elkartea egunean dagoela bere betebeharretan Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.

-Eskatzaileak erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko du, diru-laguntza jasotzeko inolako debekurik edo bateraezintasunik ez duela, eta dagokion ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Halaber, eskatzaileak zehaztu behar ditu bere eskaeraren jarduerak eta aurrekontua.

Arduradunak txostena egingo du, goian azaldutakoa egiaztatuz. Bestalde, txosten hori egingo du jakiteko ea aurrekontuan diru-izendapenik badagoen edo ez diru-laguntza izendun hori emateko.

Era berean, diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio Kontuhartzaitzaren txostena behar dela.

B. Gobernu Batzarrak erabakia hartuko du.

C Hitzarmena formalizatuko da; bertan jasoko dira emakidadunak dituen betebeharrak eta konpromisoak diru-laguntza aplikatzeko eta justifikatzeko.

D. Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, legeriak agindu bezala eman ere¹⁰.

E.-Iragarkia Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igorriko da .Baita gardentasun atarira ere.

10 39/2015 Legea, urriaren lekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40. eta 41. artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

F. Diru-laguntza jasotzeko, dokumentazioa aurkeztu behar da haren aplikazioa justifikatzeko. Oinarrietan jasota egongo da zer dokumentazio eskatu.

Kontuan hartu behar da, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorrak bere 10.8.artikuluaren esaten duena: "Inola ere ezingo dute onuradun izaerarik izan Tolosako Udalak edo beren erakunde publikoek emandako diru-laguntzak justifikatzeko daudenak, behin justifikazio hori aurkezteko epea bukatuz gero, kontuan hartu gabe DLOaren Araudiaren 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua egin den ala ez. Debeku horren ebaluazioa modu automatikoan egingo da, eta indarrean egongo da justifikazioa aurkeztu arte". Puntu honetan, beraz, kontuhartzaileak egingo duen txostenari heldu behar da.

Izan ere, diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio kontuhartzailearen txostena behar dela.

Prozedurari dagokionez, araututa daude berezitasun batzuk, diru-laguntza motaren arabera¹¹. Hori dela eta, hauexek izan behar dira kontuan:

Aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izenduna eman behar bada, ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak puntu hauek jaso behar ditu¹²:

- Zehaztu behar da diru-laguntzaren eta haren onuradunen helburua, aurrekontuko diru-izendapenaren arabera.
- Zer aurrekontu-kredituari egotziko zaion gastua eta diru-laguntzaren zenbatekoa, banan-banan, baldin eta onuradun bat baino gehiago badira.
- Diru-laguntza horren bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekiko, Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio, ente publiko edo pribatuena izan, nazioarteko erakundeena izan.
- Epeak eta moduak diru-laguntza ordaintzeko; ordaintza aurreratzeko edo konturako ordaintzak egiteko aukera; onuradunek jarri beharko bermeen arauak.
- Epea eta moduak onuradunak justifika dezan diru-laguntzak bete duela zeukan helburua, eta nola erabili diren jasotako diruak.

Gainera, kontuan izango dira Udal Ordenantzako 18.3 artikuluan jasotako puntuak.

11 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

12 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; 65.3 artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

3.-Organo eskuduna: Gobernu Batzordea. Horrela dio 2015/1.278 Alkate Dekretuak "Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea ondorengo eskuduntzak: "Diru-laguntzak eta laguntzak, konkurrentzia prozeduraren bidez ematen direnak, salbu Gizarte Ongizateko arautuak"

Beraz, bukatzeko:

Garabide Kultur Elkartek betetzen ditu diru-laguntza izenduna jasotzeko baldintzak.

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Garabide Kultur Elkarteari diru-laguntza zuzena ematea, 4.000 euro, 2018ko aurrekontuetako 0900481.01.33510 partidaren kargura.

BIGARRENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Garabide Kultur Elkartearen arteko hitzarmena, ondoko klausulen arabera:

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da bideratzea Garabidek eta Tolosako Udalak elkarlanean, 2018an burutuko dituzten jatorrizko hizkuntzak biziberritzeko proiektuak.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

- **Hizkuntzak Bizi Berritzeko Estrategiei buruzko 4. Aditu Ikastaroa.** Hiru hilabetez Euskal Herrian izango dira 18-20 eragile-kultural hizkuntza komunitate ezberdinetakoak.



- **Caucako Diplomatura.** Lehen aldiz antolatuko da Hegoan Aduku Ikastaroen pareko prestakuntza-ekimena. Ia 100 hizkuntza-sustatzaile batuko dira 8 asteburuz nasa komunitatearen biziberritze linguistikoko estrategiak adosteko eta horren inguruko formazioa jasotzeko. Erreferentziazko ekimena izan daiteke Hego Amerikako gainontzeko biziberritze-prozesuetarako.
- **Mapuzuguna irakasteko barnetegietako eta helduen irakaskuntzako irakasleentzako prestakuntza metodologikoa eta planifikazioari buruzkoa.** Zornotzako Barnetegiarekin elkarlanean, kimelfe edo hizkuntza-irakasleei, luzatu diguten eskaerari erantzunez, prestakuntza eskaini nahi zaie une honetan duten irakaskuntza-dinamika sendotzeko.
- **Tamazigh hizkuntza biziberritzeko jardunaldiak** (Tanger, 2018ko abendua)

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziaketa.

Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 4.000 eurokoak izango dira, 0900481.01.33510 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldatetarako, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jardura osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko da jardura horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantziazio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jardura finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.



Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitatek ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak erantsi behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintzak eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egin behar da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatu behar da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitatearen bidez, oro har, honako dokumentazio hau duela:

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adierazi behar da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.



b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria bat, non hauek jasoko diren:

- Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak.
- Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak. Agiri horiei erantsiko zaie egindako ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
- Berreskuratu edo konpentsatu ezin daitezkeen zeharkako zergak justifikazioaren osagaiak badira, pertsona onuradunak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko aitoren bat, zehaztu ahal izateko frogagiritan ageri diren zergetatik zein hartu litezkeen diruz lagundutako gastutzat.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehaztu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntzaren ordainketa egin behar da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela-eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzaren % 75, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25a egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

Bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.



TOLOSAKO
UDALA

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.

Hamabigarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalauugarrena: lan- eta zerga-legeria. Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

Hemezortzigarrena: Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura



TOLOSAKO
UDALA

ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

HIRUGARRENA.- Iragarkia Diru-Laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igortzea.

LAUGARRENA.- Diru-laguntza hau Gardentasun atarian argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

4. ONARTZEA BERTSOZALE ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

Tolosako Udaleko Euskara teknikariak, 2018ko maiatzaren 29an egindako txostenean, interesekotzat jotzen du aipatutako Elkarteari diru-laguntza izenduna ematea.

Guztira 28.300 euroko diru-laguntza planteatu du.

Izan ere, egitasmoaren azterketa egin ondoren, ekimen berak euskararen normalizaziorako duen balioa kontutan izanik Bertsozale Elkarteari aipatutako diru-laguntza ematea proposatu du teknikariak.

Teknikariak txosten juridikoa eskatu du.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.-Oinarri juridikoa eta udalaren eskumena Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.



TOLOSAKO
UDALA

- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua m) atalak udalek, besteak beste, "Kultura sustatzea eta kultur ekipamenduak" arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 17.1.20. artikulua arabera udalerriek, besteak beste, ondorengo esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: "kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea".

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere Zioen Azalpenean, bere IV. apartatuan honela dio: "Bistakoa da tokiko politikaren kalitate instituzionala hobetu beharra dagoela udal-gobernuek bere legitimitatea indar dezaten, zerbitzu-zorro iraunkor eta efizientea garatuz. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea, eta udalaren legitimazio instituzionalaren oinarria da, neurri handi batean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta herritarrei bizi kalitate egokia eskaintzea, eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuta; **horien artean, gainera, hizkuntza eskubideak.**

Hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura eta hizkuntza eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde. Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratu eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz.

Toki-agintarien jarduerak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza



Erregionalen edo Gutxituen Europako kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan-karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsi izan ondoren, non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen "hizkuntza erregionalaren edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hitzunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak , hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hitzunikiko diskriminazio-egintzatzat.

Azken finean, lege honek bilatzen du euskal toki-erakundeei erabateko toki-autonomia bermatzea modu efektiboan esku har dezaten beren auzotarren interes eta asmoei eragiten dieten gainetan muga bakarra izanik errespetatzea eraginkortasunaren, efizientziaren eta administrazio onaren printzipioak eta betiere, mendeturik aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko arautegi aplikagarriari, udal autogobernuko eredu garatuenekin koherentzian jokatzuz eta 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiari buruzko Europako Kartaren espirituarekin eta printzipioarekin bat etorriz, karta hori indarrean baitago gure ordenamendu juridikoan 1988ko urtarrilaren 20an berretsi izan ondoren. Eta hori guztia Toki Autonomiari buruzko Europako karta lehentasunezko iturri bat delako toki-araubideari buruzko legeen integrazioarako eta interpretazioarako.

Era berean, Lege honek, bere 7. artikuluan "Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerrari dagokionez" atalean ondorengo dio, bere 2. apartatuan:

"Era berean, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, bere lurralde eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatze eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek **euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.**

2. Udalaren sustapen-neurriak eta diru-laguntzak. Prozedura:

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko hiru araudi nagusi hauek arautzen dituzte:



TOLOSAKO
UDALA

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.
- Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorra.

Arautegi horien arabera, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidezkoa da.

Halere, **zuzenean eman daitezke** honako diru-laguntza hauek:

a) Toki-entitateen aurrekontu orokorretan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, diru-laguntza horien hitzarmenetan eta araudian jasotako baldintzetan.

Hauexek dira toki-entitateen aurrekontuetako diru-laguntza izendunak: helburua, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna zehaztuta dituztenak aurrekontuaren gastuen orrian.

b) Lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaizkion diru laguntzak edo zenbatekoak; diru-laguntza hauek emateko, arauaren beraren arabera aplikatu beharreko prozedura jarraitu beharko da. Bestalde, diru-laguntza hauek erregulatuko dituzte lege-mailako arau horrek berak eta dagokion administrazioari berariaz aplikatu beharrekoak direnek.

c) Salbuespenez, honako diru-laguntza hauek eman daitezke zuzenean: interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoak tarteko direla justifikatzen dutenak eta halako laguntzak emateko deialdi publiko bat egitea ezinezkoa dela ere justifikatzen dutenak justifikazio arrazoituaren eta agiri bidezko memoriaren bidez.

Diru-laguntzak eman aurretik, onartuta egon behar dute haien oinarri erregulatzailerak ezartzen dituzten arauak.

Legeriaren arabera, aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunen kasuan, diru-laguntza emateko egintza edo hitzarmena bera diru-laguntzak emateko



oinarri arautzailatzat joko da; era berean, hitzarmenak diru-laguntzen Lege Orokorreko 28.3 artikuluko elementuak jaso beharko ditu¹³.

Diru-laguntza zuzenean emateko prozeduraren oinarritzko ezaugarria da ez dela exijitzekoa publizitatearen eta norgehiagokaren printzipioak betetzea, eta lehen aipatu bezala, Legean aurreikusitako kasu horietan soilik aplikatu daitezke. Hori bai, kontuan izan behar da ematen diren diru-laguntza guztiak haien datu-basera bidali behar direla (BDNS-Banco de Datos Nacional de Subvenciones), egintza erregistragarriak gertatu ahala bidali ere, eta helarazi behar direla egintza gertatu eta hurrengo hilabete naturala bukatu baino lehen¹⁴.

Era berean, kontuan izan behar da ondorengo betebeharrak hau ere¹⁵: Subentzio edo laguntza publiko batek deialdia egitea ez badu derrigorrezko, hura ematen duen organoak BDNSn erregistratu beharko ditu datu egituratuak, honako epe hauetan: xedapen arautzailea argitaratu eta berehala, baldin eta subentzioak edo laguntzak hartzaile zehazturik ez badu; eta ematen den momentuan, gainerako kasuetan. SNPS-DPSNk (Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones-Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionala) berehala egingo du datu horien publizitatea, eta ez da aplikagarria izango 72 orduko epea, bosgarren xedapenean ezarrita dagoena; era berean, ez da beharrezkoa estraktua aldizkari ofizialean argitaratzea.

Xehetasunean, Legedi hau aplikatu behar da:

- Diru-laguntzen udal ordenantza. Kasu honetan, diru-laguntza izendunak udal ordenantzako 13.3,a eta 18-22 artikuluek arautuko dituzte.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 21., 22., 25. eta 72. artikulua.

— 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, toki-korporazioen zerbitzuen araudia onartzen duena; II. Titulua.

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa; 9.2, 22.2, 28., 30. eta ondorengoak.

13 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2006 diru-laguntzen Lege Orokorren erregelamendua onartzen duena; 65.3 artikulua, bigarren paragrafoa; 67.2 artikulua, bigarren paragrafoa.

38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa, 28.3 artikuluan agertzen den Errege Dekretua.

14 Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20.8.b artikulua, ondorengo honetan garatua: Estatuko Administrazioari Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9koa; 4.2 artikulua.

15 Estatuko Administrazioari Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ekoa; seigarren artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

— 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua; 55., 65., 66. eta 67. artikulua. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten.

— Estatuko Administrazioako Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ean emana. Horren bidez arautzen da zer prozesu jarraitu behar den Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalan (SNPS) subentzio eta laguntzen deialdien erregistroa eta publizitatea egiteko.

— Estatuko Administrazioako Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9an emana. Horren bidez arautzen dira Diru-laguntzen Datu-Base Nazional berriari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna.

---40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arena. Konkretuki, 47-53 artikuluetan zehaztutakoa. Batez ere, kontutan hartu behar da 48.7 artikulua dioena: "Cuando el convenio instrumento una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo, que en su caso, resulte aplicable.

Prozedura, normalean, ofizioz hasiko da. Horretaz gain, prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, kasu hauetan: aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendun bat eman behar denean, eta lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaion zuzeneko diru-laguntza bat eman behar denean, baldin eta entitate emailearen eta onuradunen artean hitzarmena sinatu behar bada.

Zuzeneko diru-laguntza emateko prozedura orokorra honako hau da:

A. Departamentuko arduradunak egiaztatu behar du diru-laguntza eskaerak ondoko baldintzak betetzen dituela:

-Eskatzailea den Elkartearen Erregistroan inskribatuta dagoela, eta bere ordezkaria .

-Elkartearen Estatutuetan arautzen den xedea bat datorrela diruz lagunduko diren jarduerekin.

-Elkartea egunean dagoela bere betebeharretan Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.

-Eskatzaileak erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko du, diru-laguntza jasotzeko inolako debekurik edo bateraezintasunik ez duela, eta dagokion ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Halaber, eskatzaileak zehaztu behar ditu bere eskaeraren jarduerak eta aurrekontua.



TOLOSAKO
UDALA

Arduradunak txostena egingo du, goian azaldutakoa egiaztatuz. Bestalde, txosten hori egingo du jakiteko ea aurrekontuan diru-izendapenik badagoen edo ez diru-laguntza izendun hori emateko.

Era berean, diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio Kontuhartzaitzaren txostena behar dela.

B. Gobernu Batzarrak erabakia hartuko du.

C Hitzarmena formalizatuko da; bertan jasoko dira emakidadunak dituen betebeharrak eta konpromisoak diru-laguntza aplikatzeko eta justifikatzeko.

D. Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, legeriak agindu bezala eman ere¹⁶.

E.-Iragarkia Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igorriko da. Baita gardentasun atarira ere.

F. Diru-laguntza jasotzeko, dokumentazioa aurkeztu behar da haren aplikazioa justifikatzeko. Oinarrietan jasota egongo da zer dokumentazio eskatu.

Kontuan hartu behar da, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorrak bere 10.8.artikuluaren esaten duena: "Inola ere ezingo dute onuradun izaerarik izan Tolosako Udalak edo beren erakunde publikoek emandako diru-laguntzak justifikatzeko daudenak, behin justifikazio hori aurkezteko epea bukatuz gero, kontuan hartu gabe DLOaren Araudiaren 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua egin den ala ez. Debeku horren ebaluazioa modu automatikoan egingo da, eta indarrean egongo da justifikazioa aurkeztu arte". Puntu honetan, beraz, kontuhartzaileak egingo duen txostenari heldu behar da.

Diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio kontuhartzailearen txostena behar dela.

Prozedurari dagokionez, araututa daude berezitasun batzuk, diru-laguntza motaren arabera¹⁷. Hori dela eta, hauexek izan behar dira kontuan:

Aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izenduna eman behar bada, ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak puntu hauek jaso behar ditu¹⁸:

16 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40. eta 41. artikulua.

17 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

18 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; 65.3 artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

- Zehaztu behar da diru-laguntzaren eta haren onuradunen helburua, aurrekontuko diru-izendapenaren arabera.
- Zer aurrekontu-kredituari egotziko zaion gastua eta diru-laguntzaren zenbatekoa, banan-banan, baldin eta onuradun bat baino gehiago badira.
- Diru-laguntza horren bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekiko, Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio, ente publiko edo pribatuena izan, nazioarteko erakundeena izan.
- Epeak eta moduak diru-laguntza ordaintzeko; ordainketa aurreratzeko edo konturako ordainketak egiteko aukera; onuradunek jarri beharko bermeen arauak.
- Epea eta moduak onuradunak justifika dezan diru-laguntzak bete duela zeukan helburua, eta nola erabili diren jasotako diruak.

Gainera, kontuan izango dira Udal Ordenantzako 18.3 artikuluan jasotako puntuak.

3.-Organo eskuduna: Gobernu Batzordea. Horrela dio 2015/1.278 Alkate Dekretuak "Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea ondorengo eskuduntzak: "Diru-laguntzak eta laguntzak, konkurrentzia prozeduraren bidez ematen ez direnak, salbu Gizarte Ongizateko arautuak"

Beraz, bukatzeko:

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak betetzen ditu diru-laguntza izenduna jasotzeko baldintzak.

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari diru-laguntza zuzena ematea, 28.300 euro, 2018ko aurrekontuetako 0900 481.01.33510 partidaren kargura.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Bertsoszale Elkartearen arteko hitzarmena, ondoko klausulen arabera:

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da bideratzea Bertsoszale Elkarteak eta Tolosako Udalak elkarlanean, 2017-2018 ikasturtean burutuko dituzten euskararen erabilerari begirako normalizazio-lanak.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

“Gu ere Bertsotan” proiektua.

Proiektu hau 2006-2007 ikasturtean jarri zen martxa Tolosan, Tolosako Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeetan Tolosako Udalaren laguntzarekin, eta halaxe jarraitu dela gaur egun arte ikasturtez ikasturte.

Beharrezkotzat jotzen dutela Tolosako Ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzan, euskarari dagokionez, ikasleen hizkuntza gaitasunean eta ahozkotasunean eragitea.

Proiektuaren eragina positiboa izan dela ikasleen euskara hizkuntzaren garapenerako, ikastetxe, Bertsoszale Elkarte eta Udalaren iritziz.

Helburuak:

- Bertsolaritzak eskaintzen dituen aberastasun linguistikoak ezagutzeaz gain, erabiltzeko gaitasuna lortzea.
- Egoera komunikatiboaren arabera, koherenteki jokatzeko jakitea.
- Hizkuntzaren erregistro informal ludikoez jabetzea.
- Hizkuntzak dituen baliabide estetikoak jabetzea eta hala izanik, erabiltzea.
- Memorizaziorako gaitasuna jorratzea.
- Bertsolaritzaren bidez Euskal Herriko tradizioa eta oraina uztartzeko gai izatea.
- Bertso eskolen ingurura ezagutu eta hurbiltzea.

Edukiak:

- Hiru eduki multzo dira; eduki multzo hauek ez dira bakarka lantzeko, lanketa egiterakoan modu global batean egiteko sorturik daude.
 - Bertsogintza komunikaziorako tresna.
 - Bertsoaren osagaiak eta ezaugarriak.
 - Ahozko tradizioaren eta bertsolaritzaren bilakaera.

Funtzionamendua:

- Bertsoszale Elkarteko espezialista hamabostean behin joango da gela bakoitzera. Espezialista joaten ez den astean landu behar duenaren berri emango dio ikastetxeko irakasleari.
- Tutorea edo guneko irakaslea bertsolariarekin batera egongo da gelan, batetik, zubi lanak egiteko eta bestetik, proiektuaren jarraipena egin dezan, iradokizunak egin ditzan eta ikasleen ebaluazioetan laguntzeko. Irakasle horrek formazioa ere jasoko luke bide batez. Bukaeran ebaluazioa burutuko dute irakasleak eta bertsolariak.
- Ikasturte amaiera aldera Gipuzkoako Bertsoszale Elkarteak hiru jaialdi antolatuko ditu herrian, eta bertan, zentro ezberdinetako ikasleen produkzioa plazaratuko da.
- Proiektuaren jarraipenari dagokionez, eskualde mailako batzorde bat osatuko da, proiektuan parte hartzen duten ikastetxe bakoitzeko arduradun bana, udal bakoitzeko arduradun bana eta Bertsoszale Elkarteko ordezkari batek osatua. Batzorde hau urtean behin bilduko da gutxienez eta horretaz gain, beharrezkoa ikusten den guztietan deitu ahal izango du batzordeko edozein partaidek.



TOLOSAKO
UDALA

- *Ikasturte amaieran ikastetxe bakoitzak idatzizko balorazio bat aurkeztuko du Bertsozale Elkartearen, eta hauekin, espezialisten eta Bertsozale Elkartearen balorazioekin era gainontzeko datuekin, txosten bat aurkeztuko zaio Udalari.*

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 28.300 eurokoak izango dira, 0900481.01.33510 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldatetarik, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzeko duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantziatio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

- a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditi, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.*

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

- b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.*

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.



Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak erantsi behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritutasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintzak eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egin behar da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatu behar da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitatearen bidez, oro har, honako dokumentazio hau duela:

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adierazi behar da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria bat, non hauek jasoko diren:

- Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak.*



TOLOSAKO
UDALA

- Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak. Agiri horiei erantsiko zaie egindako ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

- Berreskuratu edo konpentsatu ezin daitezkeen zeharkako zergak justifikazioaren osagaiak badira, pertsona onuradunak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko aitortpen bat, zehaztu ahal izateko frogagiritan ageri diren zergetatik zein hartu litezkeen diruz lagundutako gastutzat.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehaztu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntzaren ordainketa egin behar da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela-eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzaren % 75, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25a egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

Bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzeari karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.



TOLOSAKO
UDALA

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.

Hamabigarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena: lan- eta zerga-legeria. Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

Hemezortzigarrena: Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura



TOLOSAKO
UDALA

ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

HIRUGARRENA.- Iragarkia Diru-Laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igortzea.

LAUGARRENA.- Diru-laguntza hau Gardentasun atarian argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

5. TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEARI (ATARIA) DIRU-LAGUNTZA: ONARTZEA 2017KO DIRU-LAGUNTZAREN AZKEN ZATIAREN ORDAINKETA.

Tolosako Udalaren diru-laguntzen 2017ko plan estrategikoan Tolosaldeko Komunikazio Taldearentzat izendatutako diru-laguntzen gainean, Udal Gobernu Batzarrak, 2015eko apirilaren 1ean, honako hau erabaki zuen besteak beste:

1.- Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 90.000 euroko diru-laguntza onartzea, Tolosako Udalaren 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidaren kargura.

2.- Diru-laguntza bideratzeko hitzarmena onartzea.

3.- Diru-laguntzaren % 70 aurreratzea Tolosaldeko Komunikazio Taldeari, hitzarmena formalizatu eta honako agiri hauek aurkeztu eta gero:

- 2015 - 2017 urteetako egitasmoa eta aurrekontua.
- Zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

4.- Diru-laguntzaren gainerako zatia, % 30, dokumentazio hau Udalari aurkeztu eta gero ematea:

- Diruz lagundutako jardueren memoria.



TOLOSAKO
UDALA

- Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratu dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta 32 orriko astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.
- Ataria Irratia: 24 ordutan, urte osoan: gutxienez 5 orduko programazio propioa emititu da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utzi dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko.
- Internet: urte osoan: ataria.eus web gunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egin da urte osoan, etenik gabe.
- Herritarren intereseko produktuak lantzeko ahalegina egin da. Hedabideen bilakaera azkarra kontutan izanda, aurrerabideak bilatu dira beharrezkoak diren hobekuntzak egiten saiatzeko.
- Atariak abuztuan ere bere eskaintza komunikatiboa eskaini ahal izatea aztertu du. Horretan lanean ari dira.
- Herri guztietan duten banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarrien bila dabilta.
- Harpidedun-sarea zabaltzeko esfortzua egiten ari dira.
- Tolosa Komunikazio Taldearekin (28 Kanala) hasitako lankidetz-egitasmoa aurrera atera dute.
- Publizitatea. Udalak egin beharreko iragarki ofizialetan eta eskeletan % 50eko deskontua egin dute; erreferentzialtasuna irabazteko.
- Diru kontuen balantzea.
- Diru-laguntzaren xedea betetzeko egindako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.
- Zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

Udalak laguntzaren % 70 ordaindu zion eta, orain, geratzen den zatia, % 30, ordaintzeko agiriak aurkeztu ditu Tolosaldeko Komunikazio Taldeak, hain zuzen ere, goian aipatzen direnak.

Horrenbestez, Tolosaldeko Komunikazio Taldeak betetzen ditu jarri zitzaizkion baldintzak.



TOLOSAKO
UDALA

Horiek horrela, Udal teknikariaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ordaintzea Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 2017ko diru-laguntzaren gainerako zatia, hau da, 27.000 euro.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

6. 2018KO SANJOANETAKO EGITARAU ETA AURREKONTUA.

2018ko ekainaren 15ean hasi eta 25ean bukatuko diren Sanjoanetako jaien egitarau ofiziala eta honek Udalaren aurrekontuan izango duen eragina landu du Kultura, Festak eta Gazteriako Departamentuak azken hilabeteotan.

Herriko eragile ugariarekin eta udal barruko zerbitzuekin guztia koordinatu eta adostu da proposamena.

Egitarauak Sanjoanetan urterik urte errotzen joan diren ekimen guztien bilduma ekartzen du, eta Udalak bere jarduerarako ezarriak dauzkan irizpide transbertsalak betetzen ditu, berdintasunaren aldekoa eta jasangarria izatea, besteak beste.

Egitarauaren eta aurrekontuaren proposamen xehatuak kasu ia guztietan 3.000 eurotik (BEZa barne) beherako kontratazioak dira. Hemendik gorako kasuan, hiru aurrekontu eskatu ditugu, eta lana eskaintzarik onenari adjudikatzea proposatzen da.

Kasu bakarrean proposatu dugu adjudikazio zuzena, aurrekonturik eskatu gabe, eskopetarietzako salbak erosten dizkiogun enpresarena alegia. Produktu honen berezitasuna dela eta, ezin izan dugu beste inolako hornitzailearik aurkitu aurrekontua eskatzeko eta 10.285 euroko aurrekontua proposatzen dugu.



TOLOSAKO
UDALA

Aurrekontuari dagokionez, 134.989,77 euroko gastua proposatzen da. Kopuru hau kontzeptu hauen baturatik ateratzen da:

Musika emanaldiak	57.151, 05€
Beste ikuskizunak	19.967, 70€
Haur ikuskizunak	15.724,00 €
Hainbat	42.147, 02 €
GUZTIRA	134.989,77€

Hori horrela, Kultura, Festak eta Gazteriako udal teknikariak Sanjoanetarako aurkeztu duen egitaraua eta aurrekontua ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea aurtengo Sanjoanak ospatzeko aurkeztutako egitaraua eta **134.989,77€** €-ko aurrekontua.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuari.

7. ONARTZEA CIT-TEE ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

Tolosako Udaleko Kultura, Festak eta Gazteriako zerbitzuburuak, 2018ko martxoaren 22an egindako txostenean, interesekotzat jotzen du CIT-TEE Elkarteari diru-laguntza izenduna ematea. Diru-laguntza hauek jarduera hauek bultzatzeagatik izango lirateke txostenaren arabera:

-Amalur jardunaldiak.

-Topic eta Titirijaia.



TOLOSAKO
UDALA

-Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa.

Guztiz 96.000 euroko dirulaguntza planteatu du.

Izan ere, egitasmoaren azterketa egin ondoren, ekimen berak duen balio kulturalaren balorazioa eta Tolosarentzat zentzu guztietan suposatzen duen onura frogatu ondoren, CIT-TEEri aipatutako diru-laguntza ematea proposatu du teknikariak eta txosten juridikoa eskatu du.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.-Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua m) atalak udalek, besteak beste, "Kultura sustatzea eta kultur ekipamenduak" arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 17.1.20.artikulua arabera udalerriek, besteak beste, ondorengo esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: "kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea".

2. Udalaren sustapen-neurriak eta diru-laguntzak. Prozedura:



TOLOSAKO
UDALA

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko hiru araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.
- Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorra.

Arautegi horien arabera, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidezkoa da.

Halere, **zuzenean eman daitezke** honako diru-laguntza hauek:

a) Toki-entitateen aurrekontu orokorretan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, diru-laguntza horien hitzarmenetan eta araudian jasotako baldintzetan.

Hauexek dira toki-entitateen aurrekontuetako diru-laguntza izendunak: helburua, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna zehaztuta dituztenak aurrekontuaren gastuen orrian.

b) Lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaizkion diru laguntzak edo zenbatekoak; diru-laguntza hauek emateko, arauaren beraren arabera aplikatu beharreko prozedura jarraitu beharko da. Bestalde, diru-laguntza hauek erregulatuko dituzte lege-mailako arau horrek berak eta dagokion administrazioari berariaz aplikatu beharrekoak direnek.

c) Salbuespenez, honako diru-laguntza hauek eman daitezke zuzenean: interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoak tarteko direla justifikatzen dutenak eta halako laguntzak emateko deialdi publiko bat egitea ezinezkoa dela ere justifikatzen dutenak justifikazio arrazoituaren eta agiri bidezko memoriaren bidez.



Diru-laguntzak eman aurretik, onartuta egon behar dute haien oinarri erregulatzailerak ezartzen dituzten arauak.

Legeriaren arabera, aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunen kasuan, diru-laguntza emateko egintza edo hitzarmena bera diru-laguntzak emateko oinarri arautzailerat joko da; era berean, hitzarmenak diru-laguntzen Lege Orokorreko 28.3 artikuluko elementuak jaso beharko ditu¹⁹.

Diru-laguntza zuzenean emateko prozeduraren oinarritzko ezaugarria da ez dela exijitzekoa publizitatearen eta norgehiagokaren printzipioak betetzea, eta lehen aipatu bezala, Legean aurreikusitako kasu horietan soilik aplikatu daitezke. Hori bai, kontuan izan behar da ematen diren diru-laguntza guztiak haien datu-basera bidali behar direla (BDNS-Banco de Datos Nacional de Subvenciones), egintza erregistragarriak gertatu ahala bidali ere, eta helarazi behar direla egintza gertatu eta hurrengo hilabete naturala bukatu baino lehen²⁰.

Era berean, kontuan izan behar da ondorengo betebeharrak hau ere²¹: Subentzio edo laguntza publiko batek deialdia egitea ez badu derrigorrezko, hura ematen duen organoak BDNSn erregistratu beharko ditu datu egituratuak, honako epe hauetan: xedapen arautzailea argitaratu eta berehala, baldin eta subentzioak edo laguntzak hartzaile zehazturik ez badu; eta ematen den momentuan, gainerako kasuetan. SNPS-DPSNk (Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones-Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionala) berehala egingo du datu horien publizitatea, eta ez da aplikagarria izango 72 orduko epea, bosgarren xedapenean ezarrita dagoena; era berean, ez da beharrezkoa estraktua aldizkari ofizialean argitaratzea.

Xehetasunean, Legedi hau aplikatu behar da:

- Diru-laguntzen udal ordenantza. Kasu honetan, diru-laguntza izendunak udal ordenantzako 13.3,a eta 18-22 artikuluek arautuko dituzte.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 21., 22., 25. eta 72. artikulua.

19 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2006 diru-laguntzen Lege Orokorren erregelamendua onartzen duena; 65.3 artikulua, bigarren paragrafoa; 67.2 artikulua, bigarren paragrafoa.

38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa, 28.3 artikuluan agertzen den Errege Dekretua.

20 Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20.8.b artikulua, ondorengo honetan garatua: Estatuko Administrazioari Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9koa; 4.2 artikulua.

21 Estatuko Administrazioari Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ekoa; seigarren artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

— 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, toki-korporazioen zerbitzuen araudia onartzen duena; II. Titulua.

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa; 9.2, 22.2, 28., 30. eta ondorengoak.

— 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua; 55., 65., 66. eta 67. artikulua. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten.

— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ean emana. Horren bidez arautzen da zer prozesu jarraitu behar den Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalan (SNPS) subentzio eta laguntzen deialdien erregistroa eta publizitatea egiteko.

— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9an emana. Horren bidez arautzen dira Diru-laguntzen Datu-Base Nazional berriari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna.

---40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arena. Konkretuki, 47-53 artikuluetan zehaztutakoa. Batez ere, kontuan hartu behar da 48.7 artikulua dioena: "Cuando el convenio instrumente una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo, que en su caso, resulte aplicable."

Prozedura, normalean, ofizioz hasiko da. Horretaz gain, prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, kasu hauetan: aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendun bat eman behar denean, eta lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaion zuzeneko diru-laguntza bat eman behar denean, baldin eta entitate emailearen eta onuradunen artean hitzarmena sinatu behar bada.

Zuzeneko diru-laguntza emateko prozedura orokorra honako hau da:

A. Departamentuko arduradunak egiaztatu behar du diru-laguntza eskaerak ondoko baldintzak betetzen dituela, zera:

-Eskatzailea den Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoela, eta bere ordezkaria .

-Elkartearen Estatutuetan arautzen den xedea bat datorrela diruz lagunduko diren jarduerekin.

-Elkartea egunean dagoela bere betebeharretan, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.



TOLOSAKO
UDALA

-Eskatzaileak erantzukizunpeko aitorpena aurkeztuko du, diru-laguntza jasotzeko inolako debekurik edo bateraezintasunik ez duela, eta dagokion ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Halaber, eskatzaileak zehaztu behar ditu bere eskaeraren jarduerak eta aurrekontua.

Arduradunak txostena egingo du, goian azaldutakoa egiaztatuz. Bestalde, txosten hori egingo du jakiteko ea aurrekontuan diru-izendapenik badagoen edo ez diru-laguntza izendun hori emateko.

Kontutan hartu behar da, Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorrak bere 10.8.artikuluaren esaten duena: "Inola ere ezingo dute onuradun izaerarik izan Tolosako udalak edo beren erakunde publikoek emandako diru-laguntzak justifikatzeko daudenak, behin justifikazio hori aurkezteko epea bukatuz gero, kontuan hartu gabe DLOaren Araudiaren 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua egin den ala ez. Debeku horren ebaluazioa modu automatikoan egingo da, eta indarrean egongo da justifikazioa aurkeztu arte". Puntu honetan, beraz, kontuhartzaileak egingo duen txostenari heldu behar da.

Era berean, diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio Kontuhartzailetzaren txostena behar dela.

B. Gobernu Batzarrak erabakia hartuko du.

C Hitzarmena formalizatuko da; bertan jasoko dira emakidadunak dituen betebeharrak eta konpromisoak diru-laguntza aplikatzeko eta justifikatzeko.

D. Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, legeriak agindu bezala eman ere²².

E.-Iragarkia Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igorriko da .Baita gardentasun atarira ere.

F. Diru-laguntza jasotzeko, dokumentazioa aurkeztu behar da haren aplikazioa justifikatzeko. Oinarrietan jasota egongo da zer dokumentazio eskatu.

Prozedurari dagokionez, araututa daude berezitasun batzuk, diru-laguntza motaren arabera²³. Hori dela eta, hauexek izan behar dira kontuan:

Aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izenduna eman behar bada, ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak puntu hauek jaso behar ditu²⁴:

22 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40. eta 41. artikulua.

23 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

24 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; 65.3 artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

- Zehaztu behar da diru-laguntzaren eta haren onuradunen helburua, aurrekontuko diru-izendapenaren arabera.
- Zer aurrekontu-kredituari egotziko zaion gastua eta diru-laguntzaren zenbatekoa, banan-banan, baldin eta onuradun bat baino gehiago badira.
- Diru-laguntza horren bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekiko, Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio, ente publiko edo pribatuena izan, nazioarteko erakundeena izan.
- Epeak eta moduak diru-laguntza ordaintzeko; ordainketa aurreratzeko edo konturako ordainketak egiteko aukera; onuradunek jarri beharko bermeen arauak.
- Epea eta moduak onuradunak justifika dezan diru-laguntzak bete duela zeukan helburua, eta nola erabili diren jasotako diruak.

Gainera, kontuan izango dira Udal Ordenantzako 18.3 artikuluan jasotako puntuak.

3.-Organo eskuduna: Gobernu Batzordea. Horrela dio 2015/1.278 Alkate Dekretuak "Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea ondorengo eskuduntzak: "Dirulaguntzak eta laguntzak, konkurrentzia prozeduraren bidez ematen direnak, salbu Gizarte Ongizateko arautuak"

Beraz, bukatzeko:

CIT-TEE Elkarteak betetzen ditu diru-laguntza izenduna jasotzeko baldintzak.

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- CIT-TEE Elkarteari diru-laguntza zuzena ematea, 96.000 euro, 2018ko aurrekontuetako 0800.481.01.33410 partidaren kargura.

BIGARRENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta CITT-TEE Elkartearen arteko hitzarmena, ondoko klausulen arabera:



TOLOSAKO
UDALA

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta CIT-TEE elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerriaren barruan.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- CIT-TEE ELKARTEAREN 2018. URTEKO JARDUERA OROKORRA.
- NAZIOARTEKO TXOTXONGILOEN ZENTROAREN JARDUERA OROKORRA
- NAZIOARTEKO ABESBATZA LEHIAKETAREN 50. EDIZIOA
- 36. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA
- BIDAIA, NATURA ETA ANTROPOLOGIARI ESKAINITAKO AMALUR JARDUNALDIAK

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Tolosako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan diru-laguntza baten bidez. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 96.000,00 eurokoak izango dira, 0800.481.01.33410 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, kasu horretan, ulertuko da diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela, finantzaketa publikoa, halakorik bada, itzuli behar delarik jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.



TOLOSAKO
UDALA

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Tolosako udalak 2018ko aurrekontuetatik jarritako baliabideak, jarduera desberdinak kontuan izanik, era honetan banatuko dira:

- BIDAIA, NATURA ETA ANTROPOLOGIARI ESKAINITAKO AMALUR JARDUNALDIAK: 9.000 EURO
- GAINERAKO JARDUERAK, ABESBATZA LEHIAKETAREN 50. URTEURRENAREN BEREZITASUNA KONTUTAN HARTUTA: 87.000

Laugarrena: 2018ko ekitaldian Tolosako Udalak Topic-eko espazio eszenikoa erabili ahal izango du 120 ordutan. Era berean, lokalaren eta bere ekipoen arduradun teknikoaren laguntza izango du. Horrek guztiak ez dio suposatzen behar inolako kosturik Udalari, ordu hauek teknikoaren ohiko ordutegietakoak baldin badira. Ohiko ordutegiak honoko hauek izango dira:

Astelehen, asteazken eta ostegunetan: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Astearteetan: 8:00etatik 12:00etara

Ostiraletan: 8:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Ordutegi honetatik kanpora, teknikoaren lana ordaindu beharko du CIT-TEE elkarteak onartuta dauzkan prezioak aplikatuz.

Bosgarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kultura, Gazteria eta Festa departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.



TOLOSAKO
UDALA

Seigarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Zazpigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 2018ko auditoria

Zortzigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.



TOLOSAKO
UDALA

Diru-laguntzen justifikazioa 2019ko uztailaren 1a baino lehen aurkeztuko da.

Bederatzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntzaren ordainketa egingo da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo da organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan.

Betebeharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Hamargarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan Tolosako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamaikagarrena: Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharak...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamabigarrena: Genero berdintasuna.

Diru-laguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.*
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.*



TOLOSAKO
UDALA

- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamahirugarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamalauugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamabosgarrena: Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamaseigarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamazazpigarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 10.11. artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hemezortzigarrena: Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege



TOLOSAKO
UDALA

Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemeretzigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitezkeen guztian, beteko dutela.

Hogeiigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hogeiabat garrena: Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

HIRUGARRENA.- Iragarkia Diru-Laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igortzea.

LAUGAURRENA.- Diru-laguntza hau Gardentasun atarian argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuari, Kontuhartzailetzari eta CIT-TEE Elkarteari.

8. "12.4 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 32-34-36" AZPIESPARRUA URBANIZATZEKO PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 19an, hasierako onespena eman zion, bi baldintzarekin, aipatutako Urbanizatzeko proiektuari:

- 1.- Tolargi, S.A. argi-indarraren hornitzailea izatea.
- 2.- Argiteria publikoari begira, garajeen sarrera parean etxeen aurreko eta atzeko zirkuituak batzeko betebeharra.

Idazkariak 2018ko maiatzaren 11n sinatutako ziurtagiriaren arabera, jendaurrean egondako denboran ez da alegaziorik aurkeztu.

Hasierako onespenearekin batera ezarritako bi baldintzak behar bezala beteko direla jasotzen duen dokumentazioa aurkeztu du 2018ko maiatzaren 21eko datuz Nahikari Arana Arteagak, Javier Iriondo Silvan arkitektoaren izenean.



2.- Organo eskuduna.

Alkatea da organo eskuduna birpartzelazio proiektuari behin betiko onarpena emateko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.q) artikuluan xedatutakoaren arabera. Baina, 2015eko uztailaren 28ko 1.278 Dekretuaren arabera, Lege bereko 21.3 eta 23.2.b artikuluek emandako eskumenak baliatuz, Alkateak eskumen hau Gobernu Batzarrarengan eskuordetua du.

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onartzea “12.4 San Frantzisko pasealekua 32-34-36” azpiesparrua urbanizatzeko proiektua.

BIGARRENA.- Behin betiko onarpenaren ebazpena argitara ematea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza eta Azpiegiturak Departamentuari.

9. KALE GARBIKETAKO KONTRATUAREN PREZIOEN BERRIKUSPENA ETA KONTRATUA LUZATZEKO AKORDIOAREN ZUZENKETA.

2018ko apirilaren 16an onartu zen kale garbiketako kontratuaren pleguan ezarritako luzapena, eta 2018ko maiatzaren 1ean jarri zen indarrean.

Prezioa egokitu egin zen, ondoren zehazten den moduan:

“ 15. artikuluan, B gutun-azaleko B2an, honakoa ezartzen da: “ baldin eta zerbitzua luzatzen bada, hurrengo urteetako prezioa orduan indarrean dagoena baino % 5 txikiagoa izango da, makinak amortizatuta egongo direlako”.

Hortaz, prezioa egokitu egin da.

Baina, dagokion akordioan ez zen prezioa errebisatu, Baldintza juridiko administratiboan eta teknikoan 36. artikuluan jaso bezala, eta ezin izan zen aplikatu soldaten errebisioari zegokion partea, izan ere, 2017ko urtarrilaren 1etik aplikatu beharreko hitzarmena 2018ko apirilaren 19an argitaratu zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.



TOLOSAKO
UDALA

Luzatzeko akordioa, soldaten errebisioa barne, zenbateko hauen arabera egin behar da:

1 0700.227.01.163.00, 2018ko partidan 715.413,23 € (% 10eko BEZa barne), eta beste 357.706,62 € (% 10eko BEZa barne), 2019ko ekitaldian jaso beharko dira.

1 1100.227.01.431.10, 2018ko partidan 22.164,72 € (% 10eko BEZa barne), eta 11.082,36 € (% 10eko BEZa barne), 2019ko ekitaldian jaso beharko dira.

Kontuhartzaitzak eguneratu du dagokion kreditu-baimena.

Era berean, soldaten errebisioa aplikatu behar zaie aurrez egindako fakturei.

2017ari dagokion erregularizazioa: 96,72 €.

2018ko urtariletik apirilera bitarteko erregularizazioa: 458,20 €.

Hori guztia kontuan harturik, eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.– Onartzea TOLOSA UDALERRIKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA xede duen kontratua luzatzeko akordioaren zuzenketa eta prezioen berrikuspena, proposamenean xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.– Erabaki honen berri ematea TOLOSAKO GARBIKETA UTERi eta Kontuhartzaitzari.

10. 28/2018 ETA 29/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **28/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **335,90 €**-koa.



TOLOSAKO
UDALA

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-28 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **29/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **189.063,94 €**-koa.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-29 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA